

Mundua bibliotekan

Paul Auster, Donostian. Berak esana da: Mundua nire bibliotekan dago. Errealitateari -munduari- bizkarra erakutsi dion baten esaldi bat dirudi. Ez da. Gure baitako errealitatearen irudian jatorri eta izaera ugariko materiala dago: zinetik, liburutatik, telebistatik -liburutegitik- jaso dugunak ez du kalearen behaketa zuzenaren bidez hartu dugunak baino pisu gutxiago. Liburutegia ere errealitatea da. Kalea bezain erreala, bertan bildurik baitaude gure historia, aurrekoen oihartzunak, ahots joanak.

Iraganaren kalea da liburutegia. Baina ez da memoria bakarrik. Oraina bizi eta etorkizuna modu jakin batean desiratzeko tresna dugu. Hala da baita liburu bakar bat irakurri ez duen eskolatu gabe batentzat ere: haren mundu-ikuskeran Shakespeare dago, berak Shakespeare nor den ez badaki ere.

Egunotan, mundua Donostiako pantailetan. Eta mundua ikusteko moduak